

Eusebio Unzue

• BANESTO TALDEKO ZUZENDARIA •

■ Patxadaz hitz egiten badu ere, asko pentsatutako esaldien kutsua dute haren erantzunek. ■ Iruidarra da, 44 urteko gizasemea eta 20 urte daramatza zuzendari lanetan; ez du, hala ere ilusiorik galdu. ■ Itzuli handi baten garaipenak eragindako babes gozora itzuli nahi du berriro. ■ Aitor Garmendia erreku-peratu eta txirrindulari gazteen hazkundearekin gozatu nahi du, Aitor eta Unai Osarenekin batez ere.

«Beste itzuli handi bat eskuratu nahi dut heldu den urtean»



EGUNKARIA

TALDEKO bost lagun izan ezik, osterantzeko guztiak atzo etxeratu ziren, Madrilen egin beharreko argazkiak eta azterketak uste baino lehen amaitu zituzten eta. Bazkaldu ondoren, autoa hartu bezain laster hitz egin genuen taldeko zuzendari iruidarra-ekin.

■ Zertan eman dituzue bi egunok Madrilen?

Argazkiak egin eta txirrindulariek esfortzu probak egiteko baliatu ditugu. Denboraldiari buruz eta, ez dugu gehiegi hitz egin, orain esandakoak ezerezean gelditi baitaitezke otsailean. Hori guztia urtarrilean egingo dugun kontzentrazioan erabakiko dugu.

■ Taldea ez da apenas aldatu?

Ez, aurtan bezalaxe 22 txirrindulari izango ditugu hurrengoan ere. Hiru lagunek utzi dute taldea, eta beste horrenbeste heldu dira.

■ Beste kontzentrazio bat

■ egingo duzuela esan duzu urtarrilean; aspaldiko partez. Zergatik?

97az geroztik ez dugu hala korik egin, eta Mallorkako Challengea baliatzen genuen hartarako. Ordea, aurtan nahiago dugu denok urtarrilean elkartzea, lana hobeto egingo dugu eta. Bestalde, gure txirrindulari asko iparraldekoak dira, eta hegoaldera joanez, eguraldi ona ziurtatuko dugu.

■ Ez duzue beraz, denboraldia indartsu hasteko asmo-rik.

Tira, bakarren batzuk bai, hala nola, Aitor Garmendia, Dariusz Baranowski eta Aitor Osa, nahiko indartsu hasiko dira, baina oro har, lasai jardungo dugu hasieran.

■ Aitor Garmendia erreku-peratuko da?

Baietz uste dut. Aurtengoa urte txar bat baino ez dela izan pentsatu nahi dut. Gaizki hasi zen, eta gero ez zuen kemenik izan burua altxatzeko.

«Unai Osak maila handia erakutsi du Alpeetan eta Etorkizuneko Tourrean. Konfiantza handia dut Unairen, eta baita Aitor bere anaiarengan ere»

■ heldu den denboraldian?

Bai, baina ez gehiegi. Giro-ra joango da, baina Leonardo Piepoliren eta Tomasz Brozynaren itzalean. Ez dugu gehiegi presionatu behar,

ikusi egin behar dugu nola moldatzen den hiru asteko proba batean. Uste dut ez duela arazorik izango, Etorkizuneko Tourra ondo hasi eta hobeto amaitu baitzuen. Konfiantza handia dut Unairen, eta baita Aitor bere anaiarengan ere.

■ Aitor Osa ez da etsi erraza; garaipen bat eskuratu nahi du?

Badu horretarako ahalmenik. Denboraldi hasieran ondo ibiltzea nahiko nuke, eta itzuliren bat lider moduan egingo du. Ez da Girora joango, normalean, Tourrera baizik. Gerokoa denborak erakutsiko digu.

■ Gainerako euskaldunak besteentzat lanean aritzen dira gehienbat, baina garaipenaren aterik ez die taldeak itxiko?

Ez, hori jakina da. Denek lan handia egiten dute, eta garrantzitsua da liderrek jakitea euren atzetik talde sendoa dagoela.

■ Alex Zullerekin posible da Tourra irabaztea?

Baietz uste dut. Bost edo sei hautagiaren artean dago, eta zaila da gailentzea, baina litekeena, eta hartarako prestatuko da. Denboraldi hasiera lasaia egingo du, pixkanaka-pixkanaka gorantz egin dezan.

■ Eta Jose Maria Jimenez izango da Vueltako liderra?

Uste dut Tourrean ere gauza politak egin ditzakeela. Aurtan ez da, akaso, 98an bezain ondo ibili, baina beti aurrean ibili da, eta hori garrantzitsua da.

■ Ilusio berezirik?

Batetik, Aitor Garmendia erreku-peratzea, eta bestetik, gazteak gora egiten ikustea. Baina, batez ere, beste itzuli handi bat eskuratu nahi dut heldu den urtean.

Xabier Usabiaga
DONOSTIA

laburrean

ATLETISMOA

■ Gizonezkoetako azken bi garaileak irtengo dira etzi Gasteizko Maratoi Erdian

ETZI korrituko da Gasteizen 22. Maratoi Erdia, eta bertan izango dira gizonezkoen probako azkeneko bi irabazleak: Alberto Ibañez (1997an irabazi zuen) eta Roberto Ruiz (iazko garailea). Arabako Atletismo Federazioak antolatzen du proba hau, eta Cervantes Pasealekuan hasi eta bukatuko da. 1.400 bat atleta irtengo direla uste dute.

X A K E A

■ Bobby Fischer aukeratu dute XX. mendeko jokalaririk onena

BOBBY FISCHER estatubatuarra izan da (56 urte) XX. gizaldiko xake jokalaririk onena. Alemaniako Schach aldizkariak izendatu du hala Fischer, munduko 64 adituri galdetu ostean. 1972an munduko txapeldun izan zen hura, Boris Spassky errusiarari «mendeko partida» irabazi ondotik. Zerrendan Gari Kasparov errusiarra ageri da bigarren. Hirugarren, Emmanuel Lasker alemaniarra.

E S K I A

■ Disl alemaniarrek irabazi du Pokljukako biatloiko 15 kilometroko proban

USCHI DISL alemaniarrek irabazi du Esloveniako Pokljuka hirian jokatzeko ari den biatloiko 15 kilometroko proba. Proba hau Munduko Koparako baliagarria da. Dislek 52:44ko denbora behar izan zuen, Svetlana Ixmurovok baino hiru segundo gutxiago. Munduko Kopako sailkapenean Disl bigarrena da, Forsberg suediarren atzetik.

ARRAUNKETA

■ Mikel Orbañanos Ondarroako entrenatzaile berria

MIKEL ORBAÑANOS azken denboraldira arte Orioko arraunlari izandakoak zuzenduko du Ondarroako Arraun Elkarte hasi berria den denboraldian. Orbañanosen 26 urte ditu eta esperientzia handia. Izan ere, hainbat garaipen lortu ditu aulki mugikorrean zein finkoan. 24 arraunlari izango ditu.